



Urtaroak

Udaberriko haize berdexka:
belar samurrak nire oinei kilika.
Udako haize urdinxka:
olatu artean nire oinak txaloka.
Udazkeneko haize horixka:
nire oinetan orbelaren fereka.
Neguko haize gorrixka:
zure oinak nire oinei igurtzika.

MIREN AGUR MEABE

JAKIZU

- Olerkia edo poesia **bertso-lerrotan** idatzitako literatura-testua da.
- Olerkien bitartez **edertasuna, sentimenduak eta emozioak** adierazten dira.
- Olerkia **errimaduna** edo **errima gabea** izan daiteke.

1 Aukeratu. Zein bi elementu errepikatzen dira olerkian?

- ☐ Orbela eta urtaroak. ☐ Oinak eta udaberria.
☐ Belarra eta oinak. ☐ Haizea eta oinak.

2 Erantzun. Ba al dauka errimarik olerki honek? Zer hitzetan?

3 Lotu esanahi bereko hitzak.

- | | |
|-----------|----------------|
| samur ■ | ■ laztan |
| kilika ■ | ■ marruskadura |
| fereka ■ | ■ bigun |
| igurtzi ■ | ■ kili-kili |

4 Olerkian erabiltzen diren hitzak eta esaldiak irakurritz, nolako sentipenak adierazi nahi dituela esango zenuke?

- ☐ Hoztasuna eta bakardadea.
☐ Harrotasuna eta haserre.
☐ Poztasuna eta gozotasuna.

LITERATURATIK HARAGO

Olerkiaren Mundu Eguna

Urtero, martxoaren 21ean Olerkiaren Mundu Eguna ospatzen da planetako bazter guztietan. Hala izendatu zuen egun hori Nazio Batuen baitako Unesco erakundeak (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization). Poesiaren bitartez, UNESCOk hizkuntza guztien aberastasuna eta herrien identitatea aldarrikatu nahi ditu, baita olerkiaren balio artistikoa azpimarratu ere.

5 Bilatu gustuko duzun olerki bat eta errezipatu lagunen aurrean.

